

<b>BILTEGIKO ETA DPZKO SARRERA FISIKOAREN ERREGISTROA</b>	
<b>DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA</b>	
<b>Arduraduna</b>	<p><b>Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz?</b></p> <p>EJIE SA  IFK: A01022664  Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba  Telefonoa: 945 017 300  Helbide elektronikoa: <a href="mailto:ejie@ejie.eus">ejie@ejie.eus</a>  Datuak Babesteko Ordezkariekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: <a href="mailto:dpd@ejie.eus">dpd@ejie.eus</a></p>
<b>Helburua</b>	<p><b>Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?</b></p> <p>Barneko eremu babestu eta mugatuetara sartzen diren pertsonen kontrolari buruzko informazio pertsonala kudeatzea.</p>
<b>Legitimazioa</b>	<p><b>Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea?</b></p> <p>DBEO: 6.1.f) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunak bilatzen dituen interes legitimoak asetzeko.</p>
<b>Hartzaileak</b>	<p><b>Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</b></p> <p>Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, Epaitegiei eta Auzitegiei izan ezik, hala eskatzen badute.</p>
<b>Datuak gordetzea</b>	<p><b>Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?</b></p> <p>Datuak hilabete batez gordeko dira, jasotzen diren egunetik zenbatzen hasita.</p>
<b>Eskubideak</b>	<p><b>Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Edozein pertsonak dauka eskubidea ziur jakiteko ea EJIE SA berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari den.</li> <li>• Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala badagokio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko, besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako.</li> <li>• Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero, erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu.</li> <li>• Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arrazoen ondorioz, interesdunek aukeran izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi</li> </ul>

	<p>adierazteko. Hala eginez gero, EJE S.A.-k datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legezko arrazoiak ez badaude edo erreklamazioak gauzatu edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Interesdunek EJE S.Ari eman dizkioten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJE S.Atik beste erakunde batera bidaltzeko.</li><li>• Eskubideak gauzatzeko, mezua bidali beharko dute <a href="mailto:lopd-ejie@ejie.eus">lopd-ejie@ejie.eus</a> honako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri baliokideren bat ere gehituta.</li></ul> <p>Gainera, eskubideak behar bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik bat, <a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a> orrialdean adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan.</p>
<b>SEGURTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Datuak konfidentziasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezen aldatu, galdu edo beste nolabait tratatu eta inork ez ditzan baimenik gabe eskuratu.</li></ul>